



**UZESAREN KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN ETA
BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, INSTALAZIO
MINIHIDRAULIKOEN USTIAPEN ETA MANTENTZE
ZERBITZUAK KONTRATATZEKO**

ESPEDIENTE ZENB.:

UZE/10/001

PROZEDURA NEGOZIATUA



KARATULA

ADJUDIKATZEKO ERA: Lehiaketa negoziatua publikitatearekin.
ESPEDIENTE ZENB.: UZE/10/001

A. KONTRATUAREN XEDEA

Teknologia minihidraulikoaren bidez elektrizitatea ekoizteko instalazioen ustiapen eta mantentze zerbitzuak kontratatzea, VI. ERANSKINEAN azaltzen den moduan. Aipatutako instalazioak, une orotan, funtzionamendu eta segurtasun aldetik egoera onean edukiko dira, ahalik eta errendimendurik handiena lortu ahal izateko.

B. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA

UZESA, honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

- Pertsona arduraduna(k), teknikaria: José Manuel Ibeas / Francisco Gómez
- Telefonoa/posta elektronikoa: 943.33.200.00 / 94-403.56.99 / jmibeas@eve.es
- Kontratatzailearen profila: www.eve.es

C. AURREIKUSITAKO KONTRATUAREN PREZIOA

Aurreikusitako kontratuaren prezioa: 100.000 euro (BEZa gabe)

D. IZAPIDEA

Ohiko izapidea

E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO AZKEN EGUNA

Eskaintzak edo proposamenak 2010eko ekainaren 30eko 12:00ak arte jasoko dira.

F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA

“UZESA” sozietatearen izenean aurkeztuko dira, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez dagokio.

H. BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratuaren prezioaren ehuneko bosta (%5) (BEZa gabe).

I. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio.

J. GAUZATZEKO LEKUA ETA EPEA

Epea: Urtebete. Lanak 2010/10/1ean hasiko direla aurreikusten da.
Lekua: Plegu honetan aipatzen diren instalazioetan.

K. BERMEAREN EPEA

Ez dagokio.

L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Ez dagokio.

M. ALDAGAIEN ONARPENA

Ez dagokio.



N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA

Plegu honen 7.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena erabakitzeke erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak
B gutun-azala. Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak		
1	Lan-metodologia.	25
2	Giza baliabideak eta kontratua gauzatzeko erabiliko diren materialak.	25
3	Pleguan ez dauden hobekuntza proposamenak.	10
C gutun-azala. Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak		
4	Eskaintza ekonomikoa.	40
GUZTIRA		100

ESKAINZA EKONOMIKOA (gehienez 40 puntu, 100 puntu artean)

Proposamen ekonomikoari (C gutun-azala) dagozkion puntuak honako formula honen bidez kalkulatu dira:

$$\text{Enpresa lizitzailearen puntuak} = \frac{\text{Eskaintza ekonomiko onena}}{\text{Enpresaren eskaintza ekonomikoa}} \times 40 \text{ puntu}$$

P. ZIGORTZEA

Plegu honetan aurreikusten direnak.

Q. LUZAPENA

Ez dagokio.

R. LANAK ZATIKA JASOTZEA

Ez dagokio.

S. PREZIOAREN ORDAINKETA

Prezioaren ordainketa hiru hilabetez behin egingo da, eta egindako lanak UZESAren oniritzia jaso ondoren.

Zatikako ordainketa horietako bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak modu egokian UZESAri dagokion faktura ematen eta azken horrek onartzen duen egunetik kontatzen hasita.

T. NEGOZIAGARRIAK DIREN EPEAK ETA ALDERDIAK

Ikus V. ERANSKINA



U. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

V. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete Foru Aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saileko Lana eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua saileko Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBE sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeko aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Horrela, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeak aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa.



OINARRIZKO BALDINTZAK

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

- a) Egin beharreko kontratazioa kontratu pribatutzat hartzen da, arauketa harmonizatuari lotuta ez dagoena, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen (aurrerantzean, “**SPKL**”) 3.1.d), 33.b), 13, 16.1.c) eta 175 artikuluetan ezarritakoaren arabera. Ondorioz, kontratua honako hauen arabera egingo da:
- (i) Prestakuntza eta adjudikazioari dagokionez, kontratua UZESAk SPKLen 175. artikuluan barneratutako eskakizunak betetzearren, kontratazio arloko barne instrukzioetan (aurrerantzean, “**KABI**”) ezarritakoari jarraituz eta Plegu honetan zehaztutakoaren arabera egingo da; zuzenbide pribatuko arauak ere aplikatuko dira horien osagarri.
 - (ii) Betetzeari, ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, kontratua Administrazio-klausula Berezien eta Baldintza Teknikoen Plegua (aurrerantzean, “**Plegua**”) eta honen eranskinen arabera egingo da; adjudikaziodunaren eskaintzaren arabera Pleguaren aurkakoa ez den guztian; eta kontratua formalizatzeko dokumentuaren arabera. Agiri horiek guztiek kontu-izaera izango dute. Kontratuaren betetzeari, ondorioei eta iraungitzeari buruzko araubidea zuzenbide pribatua izango da.
 - (iii) Pleguaren eta gainerako kontratu-agirien arteko diskordantzia gertatuz gero, Plegua nagusiko da. Era berean, Administrazio-klausula Bereziak nagusituko zaizkie Baldintza Teknikoei, haien arteko kontraesana gertatzekotan.

Zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira horren osagarri.

- b) Pleguaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako eranskinen edo KABlen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratua honen helburua Plegu honetako karatulan azaldutakoa da.

Hori guztia baldintza teknikoaren arabera, Zehaztapen Teknikoen Txostenean adierazten dena. Plegu honetan jasoko dena, VI. eranskina, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako txostena kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

3. LIZITAZIOAREN PREZIOA, AURREIKUSITAKO BALIOA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

- a) Aurreikusitako kontratuaren balioa karatulan azaltzen da, eta SPKLen 76. artikulua xedatutakoa kontuan hartu da, BEZa gabe.

- b) Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa.

Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Plegu honetan bildutako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).

- c) Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, UZESAk ez ditu ordainduko, Baldintza Administrazio Berezien eta Zehaztapen Teknikoen Txostenaren arabera.

- d) Prezioen berrikuspenari dagokionez, Plegu honetako karatulan adierazten dena beteko da.



4. GAUZATZEKO EPEA

- 4.1. Gauzatze epea Plegu honen karatulan adierazitakoa izango da. Ezarritako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira edo UZESAk lan programan onartuko dituenak izango dira.
- 4.2. Zehaztapen Teknikoen Txostenean lanak egiteko epeak laburtzen edo jardueren ordenamendurako zatikako epeak ezarriz gero, ezinbestean bete beharko lirateke, horrela eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.
- 4.3. Karatulan hala aurreikusten baldin bada, kontratua amaitutakoan, alde guztien oniritziarekin, kontratua luza daiteke. Luzatzekotan, epea ez litzateke kontratua gauzatze aurreikusitakoa baino luzeagoa izango.

5. ADJUDIKATZEKO ERA

UZESAk kontratatzeko dituen barne-jarraibideak edo arauak aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan.

Kontratua prozedura negoziatuaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

(i) lehen fasean ("*Eskaintzen aurkezpena*"), interesatutako lizitzaileek A, B eta C gutun-azalak aurkeztuko dituzte.

(ii) bigarren fasean ("*Kontratastaren hautaketa*"), lizitzaileek aurkeztutako eskaintzen aztertu eta kalifikatu ondoren, eta negoziazio prozesua burututa, UZESAk kontratua formalizatzeko lizitzailea hautatuko du; eta

(iii) hirugarren fasean ("*Formalizazioa*"), UZESAk eta hautatuko den lizitzaileak kontratua sinatuko dute.

6. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

6.1 Proposamenak aurkezteko epea 2010eko ekainaren 30eko 12:00ak arte izango da.

6.2 Proposamenak honako helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48011 Bilbo.

6.3 Lizitzaileak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.

6.4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute. Halaber, ezaugarri hori kredita dezakete zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko administrazio-kontratuertarako kontsulta-batzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako "**N**" **ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.

6.5 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 48. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta,



horrez gain, agiri pribatu batean adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkaturiko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, UZESAren aurrean. Enpresari horiek guztiak aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiak izenpetu behar dute adierazitako agiria.

Parte hartu ahal izateko zerbitzu enpresaren klasifikazioa eskatzen baldin bada, klasifikazioak metatzeko (HAKLEOko 52. art.), ezinbesteko baldintza izango da aldi baterako enpresen elkarte osatzen duten guztiak zerbitzu enpresa moduan klasifikatua izatea.

6.6 Lizitzaileen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZa izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.

6.7 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, UZESAren kontratatzailearen profilean lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.

6.8 Lizitzaileek ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako "**M**" **ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Lizitzaileek ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu, baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarria izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 129.3 artikulua arautzen duena beteko da.

Adierazitakoa betetzeko izango bada ere, lizitzaileek aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratu-xede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.

6.9 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.

6.9 UZESAk eta kontratistak isilpekotasun arauak beteko dituzte informazioari dagokionez, KABIren 6 (d) atalean xedatutakoaren arabera.

6.11 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, UZESArekin kontratatzeke baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.

Era berean, aurkeztuko diren datu guztien egiazkotasunaren ardurapeko adierazpena beteko da.

6.12 Lehiaketatik edo lizitaziotik at geratuko dira jarraian aipatzen diren kasuren batean baldin badaude, UZESAk behar bezala arrazoitu ondoren:

- a) Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
- b) Eskatutako gaitasun enpresarial/ profesionala egiaztatzeke agiririk ez aurkeztea.



- c) Plegu honetan eskatzen diren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatzeko agiririk ez aurkeztea.
- d) Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo beste enpresa lizitatzailleekin batera aldi baterako enpresa eratua.
- e) Plegu honetan eta zehaztaperen Teknikoen Pleguan ezarritako baldintzaren bat ez betetzea.
- f) SPKLen xedatutako baldintzaren bat ez betetzea.

7 PROPOSAMENEN EDUKIA

7.1 Lizitatzailleek hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan, datu hauek adieraziko dituzte: lizitatzaillearen izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteko, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteko, baldintza-orri honetako karatularen "A" **ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.

7.2 Hiru gutun-azalak helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 1. solairua, 48011 BILBAO. Baldintza-orri honetako karatularen "E" **ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean.

7.3 "Gaiari" dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:

- "**A**" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: dokumentazio administratiboa"
- "**B**" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: Iritzi bidez ebaluatu ahal diren irizpideen dokumentazioa"
- "**C**" **gutun-azala**: "Lizitazio-espedientearen zenbakia: Formula bidez ebaluatu ahal diren irizpideen dokumentazioa"

7.4 Baldintza-orri honetako 7.6 atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu "A" gutun-azalak, "B" gutun-azalak 7.7 atalean zehaztutakoa jasoko du eta, azkenik, 7.8 atalean adierazitako dokumentazioa eramango du "C" gutun-azalak.

7.5 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileek onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta UZESAk uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.

7.6 "A" gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.

- EEE/EVEko erregistro-sarreran utziko den gutun-azalean espediente-zenbakia, pertsona sinatzailea eta harremanetarako datuak adieraziko dira, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako "A" **ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, "Dokumentazio administratiboa" dela iragarritz.
- Dokumentazio orokorraren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatzailleek eta Estatuko lizitatzailleek edo enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenean nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz.
- Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistrora agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte "A" gutun-azalean:
 - a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emailea, eta beste pertsonaren baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonak, berriazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.



- b. Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legediak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.
- c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatzeko adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.
- d. Ardurapeko adierazpena, ahalmendutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 49.1. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Alderdi hori kreditatzeko, beteta eta izenpetuta aurkeztuko dute baldintza-orri honetako 2. eranskinak.

Adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.

- Baldintza-orriko karatulako "**G**" **ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du. Hautatutako enpresariak kontratua formalizatzen duenean, amaitu egingo da behin-behineko bermearen indarraldia, eta itzuli egingo zaie hura hautatuak izan ez diren lizitatzailerei.

Lizitatzailerearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala kreditatzeko, kaudimen hori dutela egiaztatzen duten honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

1. Finantza-erakundearen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.
2. Urteko kontuak, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko obligaziorik ez duten enpresariak, bestalde, kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legeztatuta.
3. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, edo haren ezean, kontratu honi lotutako jarduerekin zerikusia duten jardueren negozioaren bolumenarena, azken urtean izandakoen datuei dagokienez. Enpresa lizitatzailerek egiaztatu beharko dute gutxienezko negozio bolumena, 2009. urteari dagokionez, eta kontratuaren gehieneko prezioaren halako bost edo handiagoa izango da, hau da, 500.000 euro.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala

Lizitatzailerek kontratu honen inguruko lanekiko esperientzia frogatu beharko dute, honako bide hauen bitartez:

1. Azken 3 urtean honen antzeko ezaugarriak dituztenen kontratu nagusien zerrenda, haien prezioak, datak eta onuradunak adieraziz.



Enpresa lizitatzailleek azken hiru (3) urtean eskatzen den antzeko bost (5) lan, gutxienez, egin dutela egiaztatzea beharko dute.

2. Plegu honetan eskatzen diren lanak egiten arituko diren pertsonen deskribapena aurkeztu beharko da, haien gaitasuna eta esperientzia azalduta.

Behar bezala arrazoituta kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta UZESAk egokitzat jotzen badu egiaztapen-bide hori

- Kaudimenaren integrazioa kanpoko bitartekoekin

Kontratu hau sinatu ahal izateko behar den kaudimena frogatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen edo bitartekoez balia daiteke, erakunde horiekin izan ditzakeen harreman juridikoen izaera edozein dela ere; betiere, kontratua aurrera eramateko, bitarteko egokiak izango dituela egiaztatuz gero.

Kontratua egiteko aipatutako bitartekoak izango dituela egiaztatzeko asmoz, eta azpikontrastisten aldetik egin beharreko lanak ez direla kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango frogatu ondoren, azpikontratazioari dagokion konpromisoa hartu beharko du, honako baldintza hauen arabera:

- a) Hasieran dokumentu pribatua aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa behin-behinean esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentu beharko litzateke.
- b) Azpikontratatzeke asmoa duen kontratuaren zatia adierazi beharko da, eta kontratuaren prezioaren aldean, zati hori zenbat den, ehunekotan adierazita.
- c) Kontratu hau gauzatzeko esleipendun aukeratuta izanez gero, adierazi beharko du azpikontrastistaren esku jarriko dituela behar diren bitarteko guztiak kontratuaren zatia aurrera eramate aldera.
- d) Azpikontrata izango dena izenaren bidez identifikatu beharko da, edo behientzat profil profesionalaren bidez. Esleipendunak azpikontrata horretaz gain beste azpikontrata batzuk azpikontratatu nahi baditu, SPKLen 210.2 artikulua, a) eta c) hizkiek xedatutakoa kontuan hartuko da.

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzerritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala:

1. *Gaitasuna*

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztea.
- Gainerako enpresa atzerritarrek,
 - Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrak edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-esparruan.
 - Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak Espainian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrak edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrak emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak



Merkataritzako Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.

- Enpresak Espainian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

2. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala

Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzerritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpresei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri honetako Karatularen "N" **ATALEAN** xedatutako moduan.

- Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, SPKLeko 56.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.

Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.

- Enpresen langilerian ehuneko bikoia edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoak, berariaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori betetzen dela, baldin eta enpresek SPKLeko seigarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.

7.7 "B" gutun-azala: **Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa**

Lizitatzailak honako dokumentazio hau aurkeztuko du, adierazten den hurrenkeran:

- a) Lan metodologia (antolakuntza eta jarduteko metodoak) Eskaintzaileak lanak ahalik eta ondoen egiteko bideak azalduko ditu eta lan ordutegitik kanpo nola egingo duen (jai egunak eta oporrak).
- b) Kontratua gauzatzeko erabiliko diren giza baliabideak eta teknikoak: Plegu teknikoan azaltzen diren lan guztiak egiteko esperientzia egiaztatua eduki beharko du lan taldeak. Esperientzia hori frogatzeko, lan taldea osatzen duten kide bakoitzaren curriculum vitae aurkeztuko da.
- c) Proposatzen diren hobekuntzak: Dokumentu honetan zehazten diren baldintzei egindako hobekuntzak adieraziko dira.

Nolanahi ere, Plegu honen karatularen "0" **ATALEAN** zehazten den ildotik, formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ebaluatzeko, Zehaztapan Teknikoen Txostenean adierazten den dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

- Halaber, Kontratu honen lan zati batzuk gauzatzeari begira, lizitatzailak lan horiek azpikontratazeko asmorik badute, kontratuaren zein zatiri dagokion azpikontratazio hori adierazi beharko dute. Horrekin batera, azpikontratazio horren balioa edo zenbatekoa eta azpikontratataren izena edo profil profesionala. Eskaintzan, hasieran identifikatutako azpikontratatetan geroago egin litekeen edozein aldaketak UZESAren baimena jaso beharko du, Plegu honetako 23. klausulan azaltzen den bezala.



- B gutun-azalak ez du edukiko, inola ere, lizitatuzaileak eskaintzen dituen baldintza ekonomikoak edo prezioa. Eskakizun hori ez betetzeak eskaintza bazter uztea ekarriko du.
- Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.

7.8 “C” gutun-azala: Formula bidez ebaluagarriak diren irizpideen dokumentazioa

Plegu honetako 1. ERANSKINEAN jasotako proposamen-ereduari jarraituko zaio (prezioak ezingo du gainditu aurrekontuari ezarri zaion gehienezko zenbatekoa), eta Zehaztapen Teknikoen Txostenak adierazitakoa beteko da. Aparteko kontu-sail batean jasoko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen marraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da.

Lizitatuzaileek ezingo dute, SPKLeko 129. eta 131. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako Karatularen "**M**" **ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago aurkeztuz gero, bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitatuzaileak.

8 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.

Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitatuzaileak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Faxe erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatuzaileak eskaintzan adierazitako faxe-zenbakia.

Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesionala baldintza-orri honetan adierazitako moduan kreditatu ez duten lizitatuzaileak, bai eta, kasu horretan badaude, zerbitzu-enpresen sailkapena kreditatu ez dutenak ere.

SPKLeko 144.1 artikuluan xedatutakoa ez da aplikatuko, izaera armonizatua duten kontratuei lotutako proposamenen irekierari dagokionez.

9 ESKAINTZEN AURRETIAZKO BALIOESPENA

Lizitatuzaileek aurkeztuko dituzten eskaintzen aurretiazko balioespena egingo da, kaudimen tekniko eta ekonomikoa egiaztatzen dutenen artean, 7.6 klausulan eskatzen dena betez, eta karatulako "**O**" **ATALEAN** adierazitakoa kontuan hartuta, negoziazio-fasera pasako diren enpresak hautatzeko xedez.

Negoziatio-fasera pasako diren enpresa aukeratua izateko, 70 puntu gutxienez eskuratu beharko du, 100 punturen artean. Nolanahi ere, UZESAk jaitsi ahal izango du gutxieneko puntuazio hori, negoziatio-fasera pasatzeko, eta egokitu puntu kopurua. Hartara, fase horretara igaroko lirateke hiru lizitatuzaileak.

10 NEGOZIAZIO FASEA

UZESAk hogeita hamar (30) eguneko gehieneko epean, eskaintzak aurkezteko azken egunetik kontaktzen hasita, eskaintzen aurretiazko balioespena gaindituko duten lizitatuzaileekin harremanetan jarriko da, negoziatio-faseari ekiteko.



Plegu honetako V, eranskinean azaltzen dira negoziatu beharreko gaiak. Dena dela, gai horiek negoziatzeak ez du ekarriko funtsezko aldaketarik Plegu honetan azaltzen diren baldintzei dagokienez; ezta Zehaztapen Teknikoen Baldintzei ere. Nolanahi ere, negoziazio-fasean lizitzaile guztiek tratu bera jasoko dutela zainduko da, eta, beraz, ez zaio inori emango informazio gehigarririk, gainerakoen aurrean abantailan egoteko moduko informazioa, alegia.

Negoziazioak hogeita hamar (30) eguneko gehieneko epean egingo dira, UZESAk enpresa lizitzaileei negoziazio-faseari ekiteko deialdia egiten dien egunetik kontaktzen hasita. Edozein kasutan, ezohiko gertaerak izanez gero, UZESAk eskubidea izango du epe hori luzatzeko, eta bi (2) aldi gehigarri ezarriko lirakeke; aldi horietako bakoitza ez da hamabost (15) egunekoa baino luzeagoa izango.

Negoziazio-fase horri amaiera emateko, enpresa lizitzaileek idatziz azalduko dituzte euren proposamenak, eta horiek zazpi (7) eguneko gehieneko epean aurkeztu beharko dituzte,

11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA

- a) Behin betiko eskaintzak jaso ondoren, kontratazio-organoak haien balioespena egingo du, Plegu honetako karatulan ezarritako irizpideen arabera.

Eskaintza ekonomiko egokiena hautatzeko erabakia edo ebazpena jakinaraziko du, edo kontratua esleitu gabe utz dezake. Horretarako, gehieneko epea hamabost (15) egunekoa izango da, behin betiko proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontaktzen hasita. Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoaren iritziz, eskaintzan ez ohiko balioak edo gehiegizkoak izategatik betetzeko ezintasuna bada, eta alde aurretik lizitzailearekin egiaztatu ondoren, ez da hautaketarik egingo.

- b) UZESAk eskubidea izango du, formalizazioari ekin aurretik, kontratua bertan behera uzteko, edo esleitzeko prozedura bazter uzteko, kontratua prestatzeko edo esleitzeko prozeduraren arauetan konponezina den akats edo arau hausterik gertatuz gero.
- c) Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arazoizko baliora gehien gerturatzen diren eskaintzak hautatzea.
- d) Proposamena beharpen ausartegizat hartzen bada, SPKLen 136 eta 174.1. artikulua eta Lege hori garatzen duen Erregelamenduaren 85. artikulua xedatutakoa beteko da.
- e) Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitzailearen edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratuko da: kaudimen teknika kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko bikoia edo handiagoa duena.
- f) Hautaketaren ebazpena hautagaiei edo lizitzaileei jakinaraziko zaie eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

12 ESLEIPENDUNAREN DOKUMENTAZIOAREN ARKEZPENA

Hamar (10) egun naturaleko gehieneko epean, kontratistari hautatua izan den jakinarazten zaion egunetik kontaktzen hasita, eta hala badagokio, kontratatzailearen profilean argitaratzen denetik, hautatuko den enpresaburuak klausula honetako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Justifikatu eta aurkeztu behar den dokumentazioa hauxe da:

- a) Zerga-betebeharrak



- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazio Estatuko Agentziak emana, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.
 - Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiek emandakoa, administrazioarekin zerga-betebeharrei lotutako zorrik ez duela egiaztatzen duena, edo hertsadura bidea erabiltzeko ez dagokien zergadunen kasuan, borondatezko epean ordaindu ez diren zorren inguruan.
- b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak
- Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzaren Lurralde Altxortegiak emandakoa, Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.
- c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoela eta ordainduta duela egiaztatzea; horretarako azken erreziboa aurkeztu behar du, eta, horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztuko du (4. ERANSKINA) zerga horretan bajaran ez duela hartu azalduz. Zerga hori ordaintzeko betebeharrak ez badu, haren justifikazioa aurkeztu beharko du.
- d) Behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duen dokumentua, karatulako “**H**” **ATALEAN** hala ezarri bada. Bermea eratzeko prozedura SPKLen 84. artikulua xedatutakoa izango da.
- e) Aseguru enpresak egiaztatuta, aseguru guztien egokitzapena, estaldura eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 21. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.
- f) Enpresa esleipendunaren aldetik UZESAren Lan Arriskuak Prebenitzeko Planarekin bat egiten duela sinatutako adierazpena. Horretaz gain, instalazio bakoitzaren lan arrisku prebentzio planekin ere bat egiten duela adierazi beharko du.
- g) Beste dokumentu batzuk. Kontratatze gai den egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa, edo kontratua aurrera eramateko konprometitutako bitartekoak egiaztatzen dituzten dokumentuak.

13 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

- a) UZESAK bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatze gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzea ere.
- b) Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamabost (15) egun naturaleko epean egingo da.
- c) Kontratuaren formalizazioaren bitartez, UZESAK kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.
- d) Kontratuak bere baitan bilduko ditu UZESAK kontratatze dituen barne arauan jasotako aipamenak.
- e) Kontratuak ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkeztu ez baditu. Kontratuak enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, UZESAK behin-behineko bermea konfiskatzeko



eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak UZESari kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa izango da.

- f) Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.
- g) Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako IFZ ere aurkeztu beharko dute.
- h) Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.

14 KONTRATUA GAUZATZEA

- a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.
- b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.
- c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita UZESArentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.
- d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).
- e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da.
- f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigorputa dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.
- g) UZESAk ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztatik baimendu ez duen ezein lan.

15 KONTRATUAREN ALDAKETA

- a) Ezustekoei eta egoera berriei aurre egin ahal izateko UZESAk zerbitzu-kontratua aldatzeko gaitasuna izango du, baina aldaketa horrek ezin izango du hasierako kontratuaren ehuneko hogeita (%20) gaintitu. Kontratistak derrigorputa onartu behar ditu aldaketa horiek. Aldaketek, kasu bakartuetan edo bere osotasunean ehuneko hori gaintituz gero, kontratistak kontratua eten dadin eskatzeko eskubidea du. Kontratuaren aldaketan prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarri eta horiek negoziatuz.
- b) Kontratistak ezin izango du inolako aldaketarik egin kontratuaren xedeari dagokionez, aldeztatik adostasunez egin ez bada, eta hala badagokio, kontratazio-organoak ezarritako aurrekontuaren gainean.



UZESAren oniritzia edo baimena ez duten aldatetek erantzukizuna ekarriko diote kontratistari, eta horiek eragin ditzakete gastuak kontratistaren kontura joango dira.

16 KONTRATUAREN LUZAPENA

Baldintza-orri honetako Karatulan aurreikusten diren baldintzak betez luza daiteke kontratua.

Aurreikusitako luzapenak gertatuko balira, kontratuaren prezioa hasieran zehaztutakoa izango litzateke, baina, luzapeneko urte bakoitzean berraztertu egingo da aurreko urteari dagokion KPIa aplikatuz. KPIa Estatistikako Institutu Nazionalak ezarritakoa izango da (SPKLen 78.3 art.).

17 PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratistak UZESAren adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den.

Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratistak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, UZESAk kontratistari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

18 BEHIN BETIKO BERMEA

Kontratistak, kontratua indarrean dagoen epe guztian zehar eta lana behin betiko jasotzeko ekitaldi formala arte, behin betiko bermea jarri eta eduki beharko du, lanak behar bezala egingo direla bermatzeari begira, Plegu honetan eta Zehaztapan Teknikoen Txostenean ezartzen diren epe eta baldintzei jarraiki.

Aipatutako behin betiko bermearen zenbatekoa kontratuaren prezioaren %5 izango da (BEZa gabe).

Kontratua bertan behera geratuko balitz, eta horren arrazoiak kontratistari egotzi dakizkioke, kontratuan jasotako prestazioak edo kantitateak itzultzeaz gain, UZESAk eskubidea izango du kalte-ordaina jasotzeko, kontratistak hartutako konpromisoak ez betetzeagatik, eta horren ondorioz, ezarritako behin betiko bermea bahituko du.

19 ZIGORRAK

19.1 Kontratistak kontratua akatsez betetzea edo zatika bete gabe uztea

UZESAk zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatze eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldian igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio. Zuzenketa horiek egiteko epea hogeita lau (24) ordukoa izango da gehienez ere.

Aipatutako hogeita lau orduko epea luzatuko balitz justifikatu gabe, UZESAk jakinarazpen bat bidaliko dio enpresa esleipendunari, haren berri emateko abisu gisa.

Bete gabe edo akatsekin betetako lanak egitearen ondorioz, esleipendunak jasoko dituen hiru (3) abisuko zigorra ordaindu beharko du. Zigor hori kontratuaren prezioaren ehuneko hiru (%3) izango da.



Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten UZESA kontratistaren berandutzeagatik edo akatsengatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina.

19.2 Instalazioen errendimenduaren araberako baldintza ekonomikoak

Kontratatik hiru hilabetez behin kobratuko duen zenbatekoa haren eskaintzan adierazten dena izango da, eta honako gorabehera hauengatik era honetan alda dezake:

- Eskaintzan adierazitakoaren aldean, %10 igotzea, errendimendu onenarekin instalazioen prestutasuna eta ezustekoen aurrean laguntzaren betetzea **%95** baino handiagoa bada.
- Aurkeztutako eskaintzaren aldean, %10 jaistea, errendimendu onenarekin instalazioen prestutasuna eta ezustekoen aurrean laguntzaren betetzea **%85 eta %90** artean bada.
- Errendimendu onenarekin instalazioen prestutasuna eta ezustekoen aurrean laguntzaren betetzea **%90 eta %95 artean** bada, jaso beharreko zenbatekoa eskaintzan edo esleipenean adierazitako zenbateko bera izango da.

Nolanahi ere, gehieneko zigor metatua kontratuaren prezioaren % 20 izango da. Ehuneko edo muga hori gaindituta, UZESA kontratua bertan behera utz dezake. Zigorrak ezartzeak ez du kanpo uzten bestelako kalte-ordainak jasotzeko eskubidea (SPKLen 198. art.).

20 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

20.1 Lan arriskuen prebentzioa

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du.

Nolanahi ere, lanak egiten diren bitartean, esleipendunak bete eta betearaziko die haren langileei UZESAren Lan Arriskuak Prebenitzeko Plana eta instalazio bakoitzean egon daitekeen plana alor horretan.

20.2 Betebehar laboral eta sozialak

a) Kontratatik, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratatik.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratatik espresuki adierazi behar du higie, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratatik bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakioken lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

d) Kontratatik behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.



e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

f) Kontratua hau sinatzeagatik UZESAK ez du inolako betebeharrak eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du UZESARI erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketean arazoan aurrean.

g) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrak, bai eta kontratistak edo honen azpikontratistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta UZESARI ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak.

Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio UZESARI. Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judicial edo administratiboak ezarritakoa izan

h) UZESAK hala eskatzen badio, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio. Aurkezten ez badio edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebeharrak bat ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, UZESAK kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du

i) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere UZESAKO langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

j) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

20.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak

Kontratistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landareetan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratistak. Horretaz gain, UZESAK eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

20.4 Hirugarrenen baimenak

UZESAK bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketa-lanak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratistak ordaindu beharko du.

21 ASEGURUAK

Esleipendunak jarraian agertzen diren aseguruak izenpetu eta indarrean mantendu beharko ditu:

a) Erantzukizun zibil profesionala

Zentzu zabalean sinatuko den erantzukizun zibil profesionalaren aseguru honek diharduten profesionalak beste bati eragin ahal dizkieten kalte edo zauriak, UZESAREN pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du. Horrekin batera, aseguratuak bere zereginak egitean, edo haren menpeko egon daitezkeen eta erantzukizuna duen besteren batek izan



dezaketen akats profesionalen edo arduragabekeriaren ondorioz, ondareari eragin ahal zaizkion kalteak ere kontuan hartuko ditu aseguru horrek.

Aipatutako aseguruak, besteak beste, erantzukizun zibil patronala (lan istripuak) produktuen eta lanen ondorengokoena bildu beharko ditu eta horren gutxieneko estaldura 600.000 eurokoa izango da ezbehar bakoitzerako. Erantzukizun zibil patronalari dagokionez, gutxieneko estaldura 150.000 eurokoa izango da kasu bakoitzeko.

Lanak direla eta, esleipendunak salgaiak edo ekipoak garraiatu behar izanez gero, garraioari lotutako erantzukizun zibilaren estaldura kontuan hartuko da.

b) Ibilgailuen aseguruak

Beharrezko erantzukizun zibila eta borondatezkoak izango dira aseguruak, kokagunean erabiliko diren alokairuzko eta jabetzako ibilgailu guztietarako, legeak eskatzen duen moduan, eta, oro har, ekipoek hirugarrenei eragin ahal dieten kalteen ondorioz, erantzukizun zibileko estaldura izango dute.

c) Pertsonen aseguruak

Lanetara esleitutako langile eta azpikontratatu guztien gaixotasunagatiko eta laneko istripuengatiko aseguruak, aplikagarria den legeriak xedatutakoa betez, eta langileen hitzarmenetan ezarritakoa kontuan hartuz. Legez eskatzen diren aseguru guztiak ere barne egongo dira.

d) Beharrezkoak diren beste aseguru batzuk, edo/eta aplikagarria den legeriak hala eskatuta.

1.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio UZESARI, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirarteke, behar izanez gero, UZESAREN iritziz.

2.- Kontratistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, UZESAK aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontatzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, UZESAK eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, UZESAK kontratistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

3.- Aseguruaren inguruan kontratistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontrastei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, UZESARI eman beharko dizkio azalpenak.

4.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak UZESARI jakinaraziko dio. Era berean, UZESAK hala eskatzen baldin badiu, kontratistak aseguruaren kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio. Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

5.- Kontratistaren kargura izango diren arrisku, betebehar eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebehar eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, UZESAREN edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

6.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.



Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, UZESAk aginduko dion eran erabiliko du informazioa kontratistak, eta kontratuarekin zerikusia ez duen zereginetarako ez du erabiliko, ezta beste pertsona batzuei emango ere.

23 LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

a) Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, SPKLen 209. artikuluan zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, UZESAk alde zuzenetik eta berriaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena.

Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.

b) Kontratistak azpikontratak egin nahi izanez gero, SPKLen 210. artikuluan zehazten diren xedapenak bete behar ditu. UZESAri azpikontratu hori adierazten dion idatzian, aipatutako xedapen horiez gain, azpikontratu egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- (i) Kontratistak alde zuzenetik jakinarazi behar dizkio UZESAri idatziz egin nahi dituen azpikontratu guztiak, azpikontratista bakoitzari lotutako kontratuaren aldea adieraziz.
- (ii) UZESAk alde zuzenetik onartu behar du.

Hala ere, jakinarazitako azpikontratazioa ez onartzeko eskubidea bere gain hartzen du UZESAk, baldin eta proposatutako azpikontrataren gaitasun teknikoa nahiko egiaztatuta ez bada, edo azpikontratu gauzatzeko baldintza teknikoak aski bermatuak ez badaude.

Azpikontratuak jatorrizko kontratistaren mende geratuko dira eta jatorrizko kontratista hori izango da, UZESAri dagokionez, Plegu honetan eta kontratuan zehazten diren betebeharren ardurak izango duena.

24 HIZKUNTZA BALDINTZAK ZERBITZU KONTRATUETAN

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardurak duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berriaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardurak duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea": a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardurak duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezken, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.



25 KONTRATUAREN ARDURADUNA

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, UZESAK kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkariatzen aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenez egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenez dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

26 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta SPKLen 206. artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

- (i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, UZESAK egokitzat joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari UZESAK eskatu eta bere horrextan gauzatutako lanak ordainduko litzaizkioke soilik, arrazoi honengatik UZESARI kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.
- (ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.
- (iii) Kontratuaren gainerako funtsezko betebeharrak bete ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, UZESA baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatu edota lanak gauzatu jarraituz, berez edo egokitzat jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

27 JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (SPKLen 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitze eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroak.



1. ERANSKINA PROPOSAMEN EKONIMIKOAREN EREDUA

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:.....

Enpresaren bulegoen helbidea:.....

.....

Datu horiek Kontrataziorako Oinarrizko Baldintzetan agertzen den eran frogatu ostean, hau adierazten dut:

1. Teknologia minihidraulikoaren bidez elektrizitatea ekoizteko instalazioen ustiapen eta mantentze zerbitzuen kontratua esleitzeko antolatutako LEHIAKETAREN berri emateko UZESAREN Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen dut.
2. Baldintza Teknikoen Pleguak, Oinarrizko Baldintzenak eta gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dut.
3. Kontrataziorako Oinarrizko Baldintzen Pleguaren lehen klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ere ezagutzen ditut.
4. Eurekin ados nago eta borondatez, bere osotasunean eta aldaketarik gabe onartzen ditut 2. eta 3. ataletan adierazten diren legezko eta arauzko dokumentu eta testuak.
5. Aipatutako kontratua burutzeko konpromisoa hartzen dut _____ euroko kopuru oso eta gehienekoarekin. Kopuru horri BEZaren _____ euroak gehitu behar zaizkio eta, ondorioz, hau litzateke guztizko kopurua: _____ euro.

[...]n, 2010eko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]

Ahalordez



2. ERANSKINA
LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin
KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:.....

Enpresaren bulegoen helbidea:.....

.....

ADIERAZTEN DUT: Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak ez dugula urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. eta 50. artikuluetan araututako kontratatzeke debekurik. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorriz, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

[...]n, 2010eko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]

Ahalordez



3. ERANSKINA BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “**Bankua**”) eta haren izenean eta ordezkarietan [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “**Sozietatea**”), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], [Erakunde Kontratatzailearen izena] aurrean (aurrerantzean, “**Onuraduna**”), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “**Bermatutako zenbatekoa**”), [kontratuaren izena idatz] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berariaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontaktzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoia hauengatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin, 200[](e)ko []aren(e)an.

[Lekua eta eguna]

[Erakundearen izen soziala]

[Ahaldun(ar)en sinadura]



4. ERANSKINA EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO AITORPENAREN EREDUA

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:.....

Enpresaren bulegoen helbidea:.....

.....

Nire erantzukizunpean, adierazten dut:

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

.....
.....
.....
.....
.....

[...]n, 2010eko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]

Ahalordez



5. ERANSKINA NEGOZIAGARRIAK DIREN EPEA ETA ALDERDIAK

- **Negoiazioaren gehieneko epea:** Hogeita hamar (30) egun, UZESAk aukeratutako enpresei negoziazio-faseari ekiteko asmoa duela idatziz jakinarazi ondoren.
- **Negoziagarriak diren alderdiak:**
 - Lan-metodologia
 - Kontratu gauzatzeko materialak eta giza baliabideak
 - Pleguan jasotzen ez diren hobekuntzak
 - Eskaintza ekonomikoa



6. ERANSKINA ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

AURKIBIDEA

1. AURREKARIAK

2. XEDEA

3. INSTALAZIOEN EZAUGARRIAK

- 3.1. CENTRAL HIDROELÉCTRICA DE RENTERIA S.A.**
- 3.2. CENTRAL HIDROELECTRICA DE SOLOGOEN S.A.**
- 3.3. ZAZPITURRI S.A.**
- 3.4. CENTRAL HIDROELECTRICA SAN PEDRO DE ARAIA S.A.**
- 3.5. HIDROELECTRICA HARANA – KONTRASTA S.A.**
- 3.6. BIOARTIGAS S.A. (ORDUNTEKO ZENTRALA)**
- 3.7. EVE (ENCARTADAKO ZENTRALA)**

4. ZERBITZUEN IRISMENA

4.1. USTIAPENA

- 4.1.1. Instalazio minihidraulikoen ustiapena langile propiorik gabe**
- 4.1.2. Instalazio minihidraulikoen ustiapena langile propioekin**

4.2. MANTENTZEA

4.2.1. SALBUESPENAK mantentzean

5. ANTOLAKUNTZA, METODOLOGIA ETA BITARTEKOAK

6. ESKAINTZA ETA JASOKO DEN ZENBATEKOAREN ALDAKETAK



1. AURREKARIAK

Energiaren Euskal Erakundeak (EEE), eratu zenetik hona, energia berriztagarrien alorreko zenbait instalazio jarri ditu abian, tokiko administrazioekin lankidetzan. Horren ondorioz, gaur egun, teknologia minihidraulikoaz baliatuta Erregimen Berezian diharduten eta elektrizitatea sortzea helburua duten sozietate batzuetan partaidetza du EEEK, ehuneko ezberdinetan bada ere. Hain zuzen ere, Plegu honen xedea dira instalazio horiek. Izan ere, instalazio horien kudeaketa eta ustiapenerako UZESAren laguntza du, eta haren ardura dira instalazioak, EEE taldearen barruko enpresa den aldetik.

2. XEDEA

Dokumentu honen helburua hauxe da: teknologia minihidraulikoaz baliatuta elektrizitatea ekoizten duten instalazioen, hurrengo atalean azaltzen diren instalazioak, mantentzea eta ustiapena modu egokian egiteko, enpresa espezializatu batek garatu beharko dituen jarduerak zehaztea. Hartara, instalazio horiek beti funtzionamendu eta segurtasun aldetik egoera onenean egoteko lanak egingo dira, haien errendimendu onena lortu ahal izateko.

3. INSTALAZIOEN EZAUGARRIAK

3.1. CENTRAL HIDROELÉCTRICA DE RENTERIA S.A.

Sozietatea zentral hidroelektriko baten jabe da Hernaniko udalerrian (Gipuzkoa).

- **Kokalekua:** Urumea Ibaian, Ereñozu (Hernani) auzoan.
- **Langileak:** Zentralak ez du langile propiorik.
- **Bideratzeko presa:** Autoz iristen da. **Albateak:** Eskuzkoak, ur hartunea (2) eta emari ekologikoa (1) kontrolatzeko. **Sareta-garbigailua:** Tenporizagailu bidez aktibatzen den automatismoarekin. **Arrain-eskala:** Badu.
- **Ubidea:** 527 m-ko luzera, oinez bisita daiteke ibilbide osoan.
- **Karga-kamera.** Zentraletik sartzen da. **Sareta-garbigailua:** Tenporizagailu bidez aktibatzen den automatismoarekin. **Maila-zunda:** Bai, erregulazio automatikoa ahalbidetzen duena.
- **Turbina:** 190 kW-eko semikaplan motakoa, era hidraulikoan eragiten den rodeten erregulazioarekin, eta bereizteko albateekin (4 m³/s-ko emaria, 5,7 m-ko jautzia).
- **Sorgailua:** 660 V-eko asinkronoa. Urpean kokatua, biderkagailuaz lotuta eta turbinarekin batera multzoa osatuta.
- **Ekipamendu elektro-mekanikoa:** 30kV / 660-380-220V-eko transformadorea. Neurtzeko gelaxkak: 30 kV. Kontrol eta behe tentsioko koadroak. Kondentsadoreen bateria. Ekipo olio-hidraulikoak. 2 kontagailu-erregistragailu, modem bidezko konexioarekin.
- Zentralak langile baten presentzia eskatzen du, alarmen ezabaketa egiteko gelditzen bada, eta geldialdi baten ondoren, berriro abian jartzeko agindua emateko. Horren ondoren, modu automatikoan erregulatu da mailaka.

3.2. CENTRAL HIDROELÉCTRICA DE SOLOGOEN S.A.

Sozietatea zentral hidroelektriko baten jabe da Soraluzen (Gipuzkoa).

- **Kokalekua:** Soraluzeko saihebidia, Bergararako noranzkoan, Deba ibaia.
- **Langileak:** Zentralak ez du langile propiorik.
- **Bideratzeko presa:** Autoz iristen da. **Albateak:** Eskuzkoa, emari ekologikoa kontrolatzeko eta bideratzeko presa husteko eta eragingailu elektrikoaren (1) bidez kanal hartunerako. **Sareta-garbigailua:** Tenporizagailu eta maila-zunda bidez aktibatzen den automatismoarekin. **Arrain-eskala:** Badu.
- **Ubidea:** 875 m-ko luzera; horietatik 353 metro kanal zabalekoak dira eta 482 metroa bituneletan. Autoz bisita daiteke.
- **Karga-kamera:** Zentraletik sartzen da. **Sareta-garbigailua:** Tenporizagailu bidez aktibatzen den automatismoarekin. **Maila-zunda:** Bai, erregulazio automatikoa ahalbidetzen duena.



- **Turbina:** 190 kW-eko semikaplan motakoa, era hidraulikoan eragiten den rodeten erregulazioarekin, eta bereizteko albateekin (4 m³/s-ko emaria, 5,7 m-ko jauzia).
- **Sorgailua:** 660 V-eko asinkronoa. Urpean kokatua, biderkagailuaz lotuta eta turbinarekin batera multzoa osatuta.
- **Ekipamendu elektro-mekanikoa:** 30kV / 380-220V-eko transformadorea. Neurtzeko gelaxkak: 30 kV. Kontrol eta behe tentsioko koadroak. Kondentsadoreen bateria. Ekipo olio-hidraulikoak. Telekomtrole egiteko ekipoa. Kontagailu-erregistragailu, modem bidezko konexioarekin.
- Zentralka automatizatuta dago, eta abian jartzen da automatikoki, linean akatsa edo matxura gertatuz gero. Modu automatikoan erregulatzen da mailaka.

3.3. ZAZPITURRI S.A.

Sozietatea zentral hidroelektriko baten jabe da Amezketan (Gipuzkoa).

- **Kokalekua:** Amezketa herriaren inguruan, Zazpiturri iturburuan.
- **Langileak:** Zentralak ez du langile propioarik.
- **Bideratzeko presa:** Ez du. **Arrain-eskala:** Ez du.
- **Ubidea:** 43 eta 235 m-ko luzera duten bi tarte; Oinez bisita daiteke ibilbide osoan.
- **Karga-kamera:** Oinez sartzen da. Autoa 100 metrora utz daiteke. **Sareta-garbigailua:** Tenporizagailu bidez aktibatzen den automatismoarekin. **Maila-zunda:** Bai, erregulazio automatikoa ahalbidetzen duena.
- **Hodia:** 485 m-ko luzera eta 700 mm-ko diametroa. Lurpean luzera osoan. Eskuzko balbularekin karga-kameraren irteeran.
- **Turbina:** Pelton motako bi txorrotarekin, 600kW-ekoa, guardako tximeleta-balbularekin, (4 l/s-ko emaria, 104 m-ko jauzia).
- **Sorgailua:** 380 V-eko asinkronoa. Zuzenean ahokatua.
- **Ekipamendu elektro-mekanikoa:** 13kV / 380-220V-eko transformadorea. Neurtzeko eta babesteko gelaxkak: 30 kV. Kontrol eta behe tentsioko koadroak. Kondentsadoreen bateria. Ekipo olio-hidraulikoak. Geldialdiak edo etenaldiak ohartarazteko ekipoa. Kontagailu-erregistragailu, modem bidezko konexioarekin.
- Zentralka automatizatuta dago, eta abian jartzen da automatikoki, linean akatsa edo matxura gertatuz gero. Modu automatikoan erregulatzen da mailaka.

3.4 CENTRAL HIDROELECTRICA SAN PEDRO DE ARAIA S.A.

Sozietatea zentral hidroelektriko baten jabe da Asparrenan (Araba).

- **Kokalekua:** Araia herriaren inguruan.
- **Langileak:** Zentralak ez du langile propioarik.
- **Bideratzeko presa:** Oinez iristen da. Ibilgailua 150 metrora uzten da. **Arrain-eskala:** Ez du.
- **Ubidea:** 1.235 m-ko luzera du; Oinez erraz bisita daiteke ibilbide osoan. Noranahiko ibilgailuekin tarteko hartunera hel daiteke. **Albateak:** Eskuzkoa hartunerako.
- **Karga-kamera:** Noranahiko ibilgailuekin sar daiteke. **Sareta-garbigailua:** Tenporizagailu bidez aktibatzen den automatismoarekin. **Maila-zunda:** Bai, erregulazio automatikoa ahalbidetzen duena.
- **Hodia:** 520 m-ko luzera eta 800 mm-ko diametroa. Lurpean luzera osoan. Eskuzko balbularekin karga-kameraren irteeran.
- **Turbina:** Pelton motako bi txorrotarekin, 967 kW-ekoa, guardako tximeleta-balbularekin, (715 l/s-ko emaria, 152 m-ko jauzia).
- **Sorgailua:** 380 V-eko asinkronoa. Zuzenean ahokatua.
- **Ekipamendu elektro-mekanikoa:** 13kV / 380-220V-eko transformadorea. Neurtzeko eta babesteko gelaxkak: 13 kV. Kontrol eta behe tentsioko koadroak. Kondentsadoreen bateria. Ekipo olio-hidraulikoak (1). Geldialdiak edo etenaldiak ohartarazteko ekipoa. Kontagailu-erregistragailu, modem bidezko konexioarekin.
- Zentralka automatizatuta dago, eta abian jartzen da automatikoki, linean akatsa edo matxura gertatuz gero. Modu automatikoan erregulatzen da mailaka.



3.5. HIDROELECTRICA HARANA - KONTRASTA S.A.

Sozietatea zentral hidroelektriko baten jabe da Haranan (Araba).

- **Kokalekua:** Kontratetik Opakua mendatera doan errepidearen ondoan.
- **Langileak:** Zentralak ez du langile propiorik.
- **Bideratzeko presa:** Ez du. **Arrain-eskala:** Ez du.
- **Ubidea:** 1.765 m-ko luzera du; Ibilbide osoan estalita dago harlauzez. Oinez iris daiteke. Eguraldi onarekin noranahiko ibilgailuarekin sar daiteke. **Albateak:** Eskuzkoa (1), ubidearen erdialdean.
- **Karga-kamera:** Zentraletik oinez sartzen da. Zorua bustita ez badago, noranahiko ibilgailuekin sar daiteke. **Sareta-garbigailua:** Ez du. **Maila-zunda:** Bai, erregulazio automatikoa ahalbidetzen duena.
- **Hodia:** 273 m-ko luzera eta 450 mm-ko diametroa. Lurpean luzera osoan. Eskuzko balbularekin karga-kameraren irteeran.
- **Turbina:** Francis motakoa, 200 kW-ekoa, guardako tximeleta-balbularekin, (320 l/s-ko emaria, 72 m-ko jauzia).
- **Sorgailua:** 380 V-eko asinkronoa. Zuzenean ahokatua.
- **Ekipamendu elektro-mekanikoa:** 13kV / 380-220V-eko transformadorea. Neurtzeko eta babesteko gelaxkak: 13 kV. Kontrol eta behe tentsioko koadroak. Kondentsadoreen bateria. Ekipa olio-hidraulikoak (1). Geldialdiak edo etenaldiak ohartarazteko ekipoa. Kontagailu-erregistragailu, modem bidezko konexioarekin.
- Zentrala automatizatuta dago, eta abian jartzen da automatikoki, linean akatsa edo matxura gertatuz gero. Modu automatikoan erregulatzen da mailaka.

3.6. BIOARTIGAS S.A. (ORDUNTEKO ZENTRALA)

Sozietatea zentral hidroelektriko baten jabe da Nava de Ordunte udalerrian (Burgos).

- **Kokalekua:** Ordunteko presaren ondoan.
- **Langileak:** Zentralean sozietatearen langile bat aritzen da, Artigasko zabortegian dagoen baterako sorkuntzan ere diharduena.
- **Bideratzeko presa:** Ez du. **Arrain-eskala:** Ez du.
- **Ubidea:** Ez du.
- **Karga-kamera:** Ez du.
- **Hodia:** Ez du.
- **Turbina:** Francis motakoa, 538 kW-ekoa, guardako tximeleta-balbularekin, (1.500 l/s-ko emaria, 40 m-ko gehieneko jauzia).
- **Sorgailua:** 380 V-eko asinkronoa. Zuzenean ahokatua.
- **Ekipamendu elektro-mekanikoa:** 13kV / 380-220V-eko transformadorea. Neurtzeko eta babesteko gelaxkak: 13 kV. Kontrol eta behe tentsioko koadroak. Kondentsadoreen bateria. Ekipa olio-hidraulikoak (1). Hutsezko txorrota duen balbula, turbina gelditzean zabaltzen dena. Ekipa elektrogenoa. Kontagailu-erregistragailu, modem bidezko konexioarekin.
- Zentrala automatizatuta dago, eta abian jartzen da automatikoki, linean akatsa edo matxura gertatuz gero. Modu automatikoan erregulatzen da mailaka/ emarika.

3.7. EVE (ENCARTADAKO ZENTRALA)

EVE zentral hidroelektriko baten jabe da Balmasedan (Bizkaia).

- **Kokalekua:** "La Encartada" zeritzon fabrika zaharraren eraikinaren barruan.
- **Langileak:** Zentralak ez du langile propiorik.
- **Bideratzeko presa:** Oinez sartzen da. **Arrain-eskala:** Ez du.
- **Ubidea:** 450 m-ko luzera du. Oinez sartzen da. **Albateak:** Eskuzkoa (1), husteko.
- **Karga-kamera:** Oinez sartzen da. **Sareta-garbigailua:** Makina garbigailua. **Maila-zunda:** Bai, erregulazio automatikoa ahalbidetzen duena.
- **Hodia:** 20 m-ko luzera eta 1,2 mm-ko diametroa.
- **Turbina:** Francis motakoa, ardatz horizontaleko kiribila, 90 kW-ekoa, (1,9 m³/s-ko emaria, 7 m-ko jauzia).



- **Sorgailua:** 380 V-eko asinkronoa. Turbinara ahokatua, biderkagailuaren bidez, poleaz..
- **Ekipamendu elektro-mekanikoa:** 380 V-eko sarera konektatua. Kontrol eta behe tentsioko koadroak. Kondentsadoreen bateria. Ekipo olio-hidraulikoak (1). Geldialdiak edo etenaldiak ohartarazteko ekipoa. Kontagailu-erregistragailu, modem bidezko konexioarekin.
- Zentrala automatizatuta dago, eta abian jartzen da automatikoki, linean akatsa edo matxura gertatuz gero. Modu automatikoan erregulatzen da mailaka.

4. ZERBITZUEN IRISMENA

Goraxeago aipatutako planta minihidraulikoak ustiatzeko eta mantentzeko lanak egitea da irismena. Aipatu denez, planta horietako batzuek langile propioak dituzte eta beste batzuek, ordea, ez. Horren ondorioz, kasu bakoitzean egin beharreko lanak baldintzatuta daude. Hori horrela, zerbitzuak emango dituen enpresak honako zerbitzu edo lan hauek egingo ditu: egin beharko diren jarduerak gauzatzeko esku lana, tresnak eta ekipoa jartzea, garraioaz, mantenu gastuez, kudeaketaz, ordezkatu behar diren ekipoen materialen erosketaz eta plantan egin beharreko beste lanak koordinatzeaz arduratzea. Ordezkatu diren tresnak eta materialak kontratistak berak jar ditzake, eta alde zuzeneko baimena edukiz gero, hari ordainduko zaizkio.

Enpresa esleipendunak ezin izango du esku lanak azpikontratatu, UZESAren idatzizko baimena eskuratzen ez bada. Azpikontrataziorik eginez gero, haren hornitzailea izango litzateke arduradun bakarra kontratistaren aurrean.

4.1. USTIAPENA

Goraxeago aipatutako eta langile propioak ez duten planten ustiapen lanak egitean datza ustiapenez dihardugunean. Horrekin batera, langileen lan ordutegitik kanpo, haien urteko egutegiaren arabera, Ordunteko Zentralean eragin litezkeen abisuei aurre egiteko laguntza emango da.

Laguntza hori 4.1.1 eta 4.1.2 ataletan azaltzen eta zehazten diren ordutegi eta moduari jarraiki gauzatuko da. Horretarako, zenbait bisita sistematiko egingo dira. Hala, arazoren bat gertatuz gero, eta haren ondorioz ekoizpen galera, jauzi elektrikoak eta aurreikusitako gabeko etenaldiak eragiten badira, hara joko da eta laguntza emango da, instalazioak berriro funtzionamendu egokian egon daitezen. Kontratistak bi instalaziori, gutxienez, aldi berean, behar bezalako laguntza emateko giza baliabideak eta material egokiak eduki beharko ditu, aipatutako arazoren bat gertatzen baldin bada. Lan jardunaldi batean egin beharreko lanak alde zuzeneko programatuko dira UZESAren batera. Programazio horretan aldaketarik egin behar izanez gero, UZESAren oniritzia izango dute aldaketa horiek.

4.1.1. Instalazio minihidraulikoen ustiapena (langile propioak gabe)

Langile propioak ez duten instalazioen kasuan, bisita egingo dira, eta astean behin gutxienez datuak jasoko dira. Horretaz gain, egiaztatu eta ikuskatuko dira kontrolari lotutako tresna eta material hauek; koadro elektrikoak, neurtzeko parametroak, seinaleak eta alarmak, instalazioen ikuskapena eta dena egoera egokian dagoela egiaztatu egingo da. Datu horiek jasoko dituen txostenaren kopia bat UZESAri emango zaio (word/excel formatua). Bisiten maiztasuna benetako premietara egokituko dira eta honako faktore hauen mende egongo da: meteorologia, emari ekologikoen kontrola eta albateen jarduna, baliabideen aprobetxamendurik handiena lortu ahal izateko.

Hil bakoitzaren hasieran energia erosteko eta saltzeko kontagailuen irakurketa-orrria beteko da. Arreta berezi jarriko da makinaren denbora doitzean eta ikusketan. Horrekin batera, emari ekologikoak kontuan hartuz eta errespetatuz, ekoizpenik handiena lortzeko, behar diren albateen jarduna behar bezala ikuskatuko da. Arazorik balego plantaren batean, bi orduko epea igaro baino lehen izango da presentzia fisikoa arazoak dituen plantan (aurreikusitako ezin diren gorabeherak izan ezik), 08:00etatik 22:00etara (jai egunak barne) ordutegian jasoko diren abisuen kasuetarako.



Abisua 22:00etatik aurrera jasoko balitz, hurrengo egunaren 09:00ak baino lehen emango litzaioke erantzuna. Instalazioak funtzionamendu normalean utziko dira, eta arazoaren ezaugarriengatik ezin izango balitz, UZESAren langileei jakinaraziko liekete, arazoaren nondik norakoaren berri emanez.

4.1.2. Langile propioak dituzten instalazio minihidraulikoen ustiapena (Ordunte)

Langilearen lan ordutegitik kanpo eta haren urteko egutegiaren arabera, langile propioak dituzten plantetan (Ordunteko Zentrala) eragin litezkeen abisuei aurre egiteko laguntza emango da. Ordunten presentzia fisikoa gainerako plantetan bezala egingo da, hau da, abisua jakinarazten den unetik bi ordura, gehienez ere, zerbitzua emango da, abisuak 22:00ak baino lehen jaso badira (jaiegunak barne). Abisua 22:00etatik aurrera jasoko balitz, langilea hurrengo egunean saiatuko da konpontzen arazoa. Hurrengo eguna laneguna ez bada plantan diharduen langilearentzat, konpontze saioa 09:00ak baino lehen egingo da. Konponketa egin ondoren, instalazioak funtzionamendu normalean utziko dira, eta arazoaren ezaugarriengatik ezin izango balitz, Ordunteko langileari edota UZESAren langileei (langilearen lan egutegiaren arabera) jakinaraziko liekete. Langilea plantara joaterik ez badu, medikuaren baja dela eta, plantan egingo den lana edo mantentzea langile propioak dituzten plantetan egiten den modu berean izango da.

4.2. MANTENTZEA

Instalazioen aprobetxamendurik handiena lortzeari begira, mantentze lan guztiak egitean datza zeregin hori. Mantentze lan horiek mantentze programari lotutako jardueren aplikazioaren ondorio izango dira, edo ustiapen lanak egitean sor litezken gorabeheren ondorio.

Modu orientagarrian, gehiago izan badaitezke ere, enpresa espezialistak egin beharko dituen mantentze lan batzuk hauexek dira: olio eta koipeen aldaketa edo berriro betetzea; dokumentazio teknikoaren kontsulta

4.2.1. SALBUESPENAK mantentzean

Ekiporen batean matxura edo arazorik badago, eta hori konpontzeko ekipoaren hornitzaileak berak edo enpresa espezializatutako talde teknikoak parte hartzea gomendagarria bada, jarduera horien ardura edo erantzukizuna ez da kontratista esleipendunarena. Nolanahi ere, hornitzaile horri laguntzeko, langile bat prest egon beharko litzateke.

5. ANTOLAKUNTZA, METODOAK ETA BITARTEKOAK

Kontratatistak bere taldeari dagozkion antolakuntza, metodoak eta bitartekoak proposatuko ditu, eskatutako zerbitzuetan oinarrituta eta horrelako lanetan duen esperientziaren arabera. Era horretan, taldearen organigrama aurkeztuko du, eta bertan, besteak beste, parte hartuko duten pertsonen arduraldiak, curriculumak eta UZESAren eta kontratistaren edota kontraten langileen arteko komunikazio bideak azalduko ditu.

Era berean, esleipendunak adierazi behar du zer-nolako metodologia erabiliko duen zerbitzu onena bermatzeko. Horrekin batera, lan ordutegitik kanpo, jai egun eta oporretan nola bermatuko duen zerbitzua azaldu beharko du.

Kontratatistaren langileek instalazioetan jasoko dituzten datuak, neurriak eta alarmak euskarri informatikoan gordeko dira (word/excel), eta horiek kopiak emango zaizkio UZESAri aldian behin. Gainera, egunero egindako lanen partean aurkeztuko dira, word/excel formatuan. Parte horietan egindako lan garrantzitsuenak eta instalazio bakoitzean emandako denbora lanean azalduko dira.



6. ESKAINTZA ETA JASOKO DEN ZENBATEKOAREN ALDAKETAK

Dagokion atalean adierazitako prezioaren barruan, 4. atalean azaltzen diren (zerbitzuen irismena) ustiapen eta mantentze lan guztiak daude. Ordunteko langilea medikuak emandako bajaran egongo balitz, edo ezarritako lan egutegitik kanpo lanera joateko ezindurik balego, hauxe eska liteke: langile horrek bere lan egutegian ematen dituen zerbitzuak kontratistak emateko, langile propiorik ez duen beste planta batean egiten duen eran, eta eguneko prezio espezifikoak fakturatuko da kontzeptu horren truke.

Kontratistak hiru hilabetez behin kobratuko duen zenbatekoa haren eskaintzan adierazten dena izango da, eta honako gorabehera hauengatik era honetan alda dezake:

- Eskaintzan adierazitakoaren aldean, %10 igotzea, errendimendu onenarekin instalazioen prestutasuna eta ezustekoen aurrean laguntzaren betetzea %95 baino handiagoa bada.
- Aurkeztutako eskaintzaren aldean, %10 jaistea, errendimendu onenarekin instalazioen prestutasuna eta ezustekoen aurrean laguntzaren betetzea %85 eta %90 artean bada.
- Errendimendu onenarekin instalazioen prestutasuna eta ezustekoen aurrean laguntzaren betetzea %90 eta %95 artean bada, jaso beharreko zenbatekoa eskaintzan adierazitako zenbateko bera izango da.